

herrera-bidebieta

Sporting Kirol Taldeak hainbat futbol partidu jokatuko ditu Gironan apirilaren 1, 2, 3 eta 4ean. Jokatuco diren partiduak Santa Eugenia, Pala Frugell eta Porqueres taldeen aurka izango dira. Norgehiagoka hauetan parte hartuko duten jokalariek alebin, infantil eta kadete mailakoak izango dira. Ez da hau Sporting taldea Gironara jokatzera doan lehen aldia. Antolatzaileek adierazi dute 55 pertsonentzako autobusa beteta dutela jadanik.




Eduarne Koch

Plan Orokorrak San Luis enparantza errespetatu.

Duela egun gutxi plazaratu da Herrerako biztanleek lortu dutela San Luis enparantza mantentzea. Udalaren esanetan Plan Orokorrak Herrerako enparantza hau errespetatuko du eta herreratar guztiok alaitasunez hartu dugu berria. Hala ere, auzokideak oraindik aurrera doaz beraien eskaerakin eta hurrengo pausua Arroitxulo inguruan kirol ekintzak antolatzeke azpiegitura eskatzea izango da.

Enkarterrietara irteera



mendi Zaleak mendi elkarateak igandera-ko, hilaren 27rako, antolatu du hilabete honetako ibilaldia. Irteera, Gordexola-Ganekogorta eta Areta inguruetara izango da. Bizkaia eta Arabako mendiak ezagutzeko aukera ederra beraz.


Ibilaldia Gordexolan hasiko da, ondoren Landeta muinora hurbilduz, honela bertatik Galarraga mendia inguratzeko nahikoa altuera hartu ahal izateko. Hemen, 900 metro inguruko altuera hartua izango

dute mendizaleek, ondoren, Pajero eta Ganekogorta mendietara igo eta hamaiketakoa egingo da.

Hemendik aurrera jaitziera hasiko da Areta herrixkara iritsi arte (130 metro).

Ibilaldiak 16 kilometro izango ditu, orora gainbehera 1.127 metrotakoa da eta iraupena lau ordu t' erdi-bost ordukoa.

Irteera San Luis enparantzatik egingo da goizeko 7:30etan. Bidaia 1.000 pezeta izango da eta Aretan egingo den bazkaria 1.800 pezeta.



ARCIA

**Izala eman nahi duenak
ARCIA hartu behar du**

Irutxulo eta lau dira zazpi...

Zorionak, donostiarroi

ziemaldia, estropadak, bertsolari txapelketa, erreala,
iñaki perurena, tanborrada **ORAIN**
IRUTXULO ASTEKARIA
EUSKARAZ

intxaurrondo


Gaztetxo Elkarateak antolatuturik, martxoaren 26an arratsaldeko 4etan, udaberri festa izango da Maria Auxiliadora elizan. Sarrera dohainik da eta 9 eta 16 urte bitarteko gazteentzat prestaturik dago.

Bustintxiki Elkarateak datorren martxoaren 27rako mendi irteera antolatu du. Mendia oraindik zehaztu gabe badago ere, Andoain inguruko bat izango da. Interesatuak haur txokoko lokaletan jaso beharko dute informazioa arratsaldeko 5:30etatik 8etara.

BERRI EMALEA



NAGORE IRASTORZA
TFNOA: 28 57 49



60 salaketa
jaso ditu
Ertzantzak
Intxaurren
urtarrilaren
25etik martxoaren
erdira bitartean.
Lapurreta gehienak
kotxe eta
komertzioetan
egin dira.

Lapurretak auzoko komertzioetan

auzokideak kezkatuturik daude otsailetik hona auzoan izan diren lapurretekin. Gehienak, kotxe eta komertzioetan izan dira eta komertzioari esanetan, lapurrek gauze burutu dituzte beren ekintzak. Kasu gehientsuenetan, lapurtakoa ez da balio edo kantitate handikoa izan, baina lapurrek eragindako hondamen eta ezustekoek auzoa kezkatu utzi dute.

Azken aldian, orain arte ikusi ez den jende arraroa somatzen da Intxaurrendoko kaleetan eta lapurretekin zeri-

kusia dutela seguru egon ez arren, kontutan hartzeko puntua dela diote.

Bestalde, kexu ugari izan da esanez, publizitate handiegia eman zaiola ertzantzaren hedapenari eta emaitzak ez direla ikusi. Bijilantzia gauze eta egunez indartzea proposatzen dute auzokideek.

Ertzantzaren esanetan, Donostiako bosgarren area hau bijilantzia aldetik indartuena dagoena da, zona konfliktibotzat jota baitago. Urtarrilaren 25etik martxoaren 11ra bitartean, Intxaurren aldeko 60

salaketa inguru jaso ditu ertzantzak, horietatik gehienak komertzio eta kotxeetako lapurretak izan direlarik. Ertzantzak dioenez, "epe txar bat besterik ez da" eta bere ezarrerarekin zerrikusirik duenik ez du uste. "Lapurretak beti izaten dira eta lasaitasun uneak dauden bezalaxe, lapurreta denboraldiak ere badaude."

Atxiloketa batzuk izan diren arren, auzokideek haserrea adierazten dute "lapurrak kalean aske dabilzalako eta harrapatuz gero, bi egunen buruan kanpoan daudelako".

ALZURI

Harategia
Urdaitegia

Intxaurren k., 54
Tfnoa.: 28 67 81
DONOSTIA

IRASTORZA

harategia

Lizardi bidea 6
INTXAURREN
Tfnoa.: 28 64 40

ELVIRA

Lisaketa -garbiketa

Intxaurren, 62. ☎ 28 68 16

• Jaso eta itzuli
48 ordutan, doan

• Lehor-garbiketa

Pierre

harategia

Zubiondo, 65 INTXAURREN

"Aragiaren
amorio
desordenatua
hain da
gauza...!"